


Erredakzio taldea



**Haizea García Canizalez / Lucía Martínez Valle / Maren Mtz. de Baroja Casais /
Carla Tejerina Jauson / Nekal Costa Mateos / Nora Guillén Castro / Noa Sáenz Gámiz /
Haizeder Sáez Villamor / Yanire Torres Martínez / Xenia Zafra Baz /
Ana Andrade Lanaspa / Arrate Boyero Mendaza / Eider Cerrudo Riero /
Nahikari Ibarrondo Mtz. de Estibariz / Eider Martínez Alba**

AURKIBIDEA

•	N PROIEKTUA	4-5 or.
•	AINARA QUESADA: “AMETS BAT BETETZEN ARI NAIZ”	6-8 or.
•	MAITASUN AHOLKUAK	9-10 or.
•	MENDEBALDEAKO KUXKUXEROAK	11-13 or.
•	EUSKARARA ETORRIAK: Carole Constanty eta Lu Serra	14-15 or.
•	MENDEKO ESKOLA KIROLA	16-20 or.
•	P. DIDDY RAP KANTARIA AUZITARA	21 or.
•	AGUR, BENITO!	22 or.
•	MENDEKO BERRIAK	23 or.
•	ASMAKIZUNAK	24 or.



Oharra: aldizkariko irudiak edo gureak dira edo Creative Commons lizentzia dute.

N PROIEKTUA

Gezurra dirudien arren, nerabeok gara gehien aspertzen garenak, batez ere 14 eta 16 urte bitartekoak, hiri txiki honetan. Parkeetarako helduegiak gara, gurasoek arraro begiratzen gaituzte eta kolunpioetatik botatzen gaituzte; dantza-lekuetara eta pubetara joateko desegokiak gara.

Ez dakigu zer egin Gasteizen.

Asteburuetan ez dugu ezer egiteko eta, egiten dugun bakarra, gure lagunekin parkera, bulebarrera edo erdialdera joatea da.

Parkera iristean, umeen gurasoek arraro begiratzen gaituzte, esaten digute alde egiteko, parkea ume txikientzako dela eta gu dagoeneko oso nagusiak garela.

Bulebarreko *findeen* asperdurarekin jarraituko dugu. Gaur egun nerabeek egiten dugun gauza bakarra *Burger King*-era joatea, dendaz denda begiratzen ibiltzea edo zinemara joatea da; hiru gauzak ez dira batere merkeak.

Erdialdean ere gure aukerak ez dira askoz gehiago, *Pinkera* joatea eta Andre Mari Zuriaren enparantzako banku batean esertzea, edo taberna batera zerbait hartzea joatea. Dendak eta beste guztiak adinekoentzako lokalak dira. Diskoteketarako gazteegiak gara, eta ez dago ere arratsaldea pasatzeko guretzako moduko *puberik*. Egoera honek ondorioak ekartzen ditu. Onena, eta nerabe gehienok egiten duguna, etxean geratzea da, baina gure gurasoek liskarra sortzen digute, *play*-arekin edo mugikorarekin aritzeagatik edo lotan geratzeagatik. Beste batzuk, ordea, asteburuak ezkutuatu pasatzen dituzte, erretzen, batzuk drogatzen ere bai. Nahiz eta oso eroa dirudien, gurasoei ez zaie buruan sartzen. Badira ere *pubetara* joaten direnak, eseri eta katxinak erretzera sartzen uzten diete, eta, beste batzuen kasuan, egun edo aukera berezietan, beren NANak falsifikatzen dituzte leku horietan sartu ahal izateko. Gurasoek uste

dute beren seme-alabek ez dutela inoiz edan, baina ez dakite leku askotan eros dezaketela, nahiz eta adin txikikoak izan, eta tabakoa beza-la vapor-ak, adina galdetu gabe.



Azken aukera bezala auzoan geratzen gara, banku batean eseri eta aspertu, azkenean etxera nahiko goiz joateko.

Gurasoak garrantzia kentzen saiatzen dira, haiek egiten zituzten gauzak kontatuz. Lagunekin aspertzea eta kanikekin jolastea ez dela gehien desiratzen duguna ulertu behar dute, garaiak aldatu egin direla.

Horren ondorioz, alboko hiri handietara joatera bultzatzen gaituzte, bertan, adin txikikoentzako *pubak*, bolera, billarrak aurkitzen batitugu. Hala ere, askotan gure gurasoek ere ez digute uzten, haien ustez helduentzako kontuak direlako.

Honegatik guztiagatik, jai txiki bakoitzean irten nahi izaten dugu, bai auzokoetara, zein hiritik gertu dauden herrikoetara. Diote, aitzakia gisa, gure adinera aurreratu nahi dugula, gauza batzuetarako oso gazteak garela, eta ez digute baime-nik ematen horietara joateko.

Helduen artean asko entzuten da: "nola datozen generazio berriak!". Eta, izan ere, zaharrenek egiten dituzten gauza berberak egiten saiatzen gara, besteak beste, lehen aipatu ditugun gauzak, hala nola edatea, erretzea, festarik festa ateratzea...

Honen guztiaren ondoren, hori konpontzeko egin genitzakeen gauzetan pentsatu dugu, eta 14-17 urte bitarteko nerabeentzako klubak eta *pubak* sortzea da, non hotzik pasatu gabe egon gaitezkeen, jende berria ezagutzen eta denetaz ikasten.



Ainara Quesada: “Amets bat betetzen ari naiz”

Ainara Quesada TikTok eta Instagrameko eduki sortzaile ezaguna da, *influencer* da. Bizitza-estiloari eta makillajeari buruzko edukiak argitaratzen ditu, hala nola, errutinak, dantza-joerak, “presta zaitez nirekin” bideoak... Anekdota bezala, urte batzuk gure artean pasa zituen, Mendebaldean.

MENDEBERRI: Nola hasi zinen bideoak igotzen?

AINARA: Orain dela 11 urte, 10 urte nituenean, asko gustatu izan zait betidanik dantza egitea eta *TikTok* “*Musical.ly*” deitzen zenean hasi nintzen, dantzatzeko egiten nituen bideoak igotzen.

M: Nondik hartu zenuen inspirazioa?

A: Manu Trevejorengandik.

M: Zure txikitako ametsa da? Eta, ez bada, zein da?

A: Ba bai, beno txikitik esaten nuen handitan dantzaria eta abeslaria izango nintzela eta abeslaria ez naiz baina bideoak dantzatzeko igotzen ditut. Eta, egia esan, amets bat betetzen ari naiz.

M: Ikusi dugu Kubakoa ere bazarela. Zer desberdintasun dago Kubako kultura eta Euskal Herriko kulturaren artean?

A: Askok, ez dira batere antzekoak, janaria, irakasteko modua, janzkera...



M: Hasieran *hate* asko jaso al zenuen?

A: Ez, bueno, hasieran nitaz barre egiten zuten *Musically* aplikazioa ia ez zelako ezagutzen eta ez zelako normalena. Hiru urte eman nituen bideorik igo gabe, gero berriz hasi nintzen bideoak igo-

M: Zergatik erabaki zenuen berriz bideoak igotzea?

A: 17 urterekin konturatu nintzen nagusia nintzela eta berdin zitzaidala zer esaten zuten, eta horrela hasi nintzen gustatzen zitzaidana egiten.

M: Kolaborazioekin noiz hasi zinen?

A: 2022an hasi nintzen bideo biral bakar batekin. Nire amak esan zidan aprobetxatu behar nuela; horregatik agentzia batean sartu nintzen eta momentu horretan hasi nintzen dirua irabazten.

M: Jarraitu nahi duzu urte askotarako edo bakarrik aisialdirako?

A: Nigatik balitz urte askotarako, baina beste gauza batzuekin nahasten.

M: Zer pentsatzen dute zure ezagunek zure sare sozialei buruz?

A: Ba bueno, ez didate ia ezer esaten nireak direlako baina, adibidez, nire mutil lagunak ez du ulertzen mugikorrarekin ordu asko egon behar dudala, baina onartu behar du. Nire bizitza delako eta horrekin dirua irabazten dudalako. Beste aldetik, nire lagunak eta horrela asko poztu ziren opariak ematen nizkielako eta interes gehiago jarri zuten.

M: Dakigunez Ibizan egon zara, zer moduz? Errepikatuko zenuke?

A: Buaa, Ibiza beste *rollo* bat da, oso ondo. Dударik gabe errepikatuko nukeela.

M: Sare sozialez aparte, ikasten edo lan egiten duzu?

A: Orain kiroldegi batean lan egiten hasiko nahiz *community manager* bezala, kiroldegiko sare sozialak eramaten eta horrela.

M: Beste eduki sortzaileekin egon zara inoiz?

A: Bai, jazoeretan.

M: Eta erakusten duten modukoak dira?

A: Uf, ez dira zehatz mehatz berdinak, baina gutxi gorabehera gehienak bai.

M: Erraza izan da hau guztia lortzea, mundu horretan sartzeara, ala nola?

A: Bai eta ez. 14 urterekin hasi nintzen bideoak grabatzen eta duela gutxira arte ez nuen ezer irabazten. Egon naiz egunero bideoak grabatzen eta kostatzen da, ez beste lan gogor batzuetan bezala, baina zaila da denei gustatzea.

M: Ikusi dugu anaia bat daukazula. Nolakoa da zuen arteko harremana?

A: Txikitan gorroto nuen, baina nire neba da eta azkenean maitatzen ikasi dut.

M: Nolakoa izan zen zure esperientzia Mendebaldean? Kontatu anekdota bat.

A: Mendebaldeatik joan nintzen ez neukalako harreman ona ikaskideekin, eta ez nengoen gustura ikastetxean. Orduan Jesús Obrerora joan nintzen eta hor lagunak egin nituen, jende gehiago jarraitzen hasi zitzaidan eta horregatik majoak izaten hasi ziren nirekin. Eta oso lasaia nintzen, ez daukat anekdotarik.



di-da batean

Ainara Quesadarekin

MENDEBERRI: Zenbat urte dituzu?

AINARA: 23.

M: Kolorerik gustukoena?

A: Urdina.

M: Zenbat denbora daramazu zure bikotearekin?

A: 10 hilabete.

M: Zure opor gustukoenak non izan dira?

A: Brasilen, pasa den urtean.

M: Udako herririk ba al duzu?

A: Bai, baina ez naiz udatan joaten.

M: Pertsona lasai ala aktibotzat duzu zure burua?

A: Lasaitzat, baina kirola oso gustuko dut, astean zehar lasai-lasai nabil eta gero asteburuan, juergan ibiltzen naiz. (*barreak*)

M: Duzun zerbait aldatu ahalko bazenu, zer izango litzateke?

A: Bengatiboa naizela, bueno, gero eta gutxiago, eta oso harroa naizela ere.

M: Pozik zaude orain duzun bizitzarekin?

A: Bai, oso.

M: Kaletik argazkiak eskatzen dizkizute?

A: Bai, baina kanpora joaten naizenean. Gasteizen ez dizkidate asko eskatzen, betidanik ezagutzen nautelako, kanpora ateratzen naizenean, adibidez Madrilera, bai eskatzen dizkidatela.

M: Zein gai da zure gustukoena bideoak grabatzeko?

A: Dantzatzen eta makillatzen.

M: Denbora asko ematen duzu ilea apaintzen?

A: Astean zehar behin edo bitan garbitzen dut ilea eta ordu erdi gutxi gora behera behar dut.

M: Zein tiktoker ez duzu gustuko?

A: Borja Escalona; ez dut aguantatzen.

M: Zein *tiktokerrekin* grabatu nahiko zenuke?

A: Isabela Laderarekin, ez da hemengoa, Venezuelakoa da.

M: Noren edukia duzu gustuko?

A: Sofia Surfersena, beti kanpoan dagoelako.

M: Pertsonarik famatuena zure kontaktuetan?

A: Ez daukat, ez diot nire mugikor zenbakia ia inori ematen, dena *Instagram*etik hitz egiten dut, *Whatsappa* pribatuagoa iruditzen zait.

M: Zein da hitz egin duzun pertsonarik famatuena?

A: Ez dut inoiz pertsona famatuekin hitz egin.

MAITASUN AHOLKUAK

Pentsatu ohi dugu prest gaudela harreman batean sartzeko, baina momentua iristen da eta atzeraka egiten dugu, ez gara gai lasai bizitzeko, harremana ez da egonkorra... Kosta egiten zaigu prestatuta ez gaudela sinestea, baina konturatzen gara ez gaudela prest norbait zaintzeko, geure burua zaintzen dugun bezala. Horregatik jakin behar dugu harreman batean egoteko ea prestatuta gauden ala lehenik, prest egoteko, geure baitan lan egin behar dugun.

Nola izan harreman osasuntsua?

Harreman osasuntsua konfiantzan oinarritzen da, elkarrenganako konfiantza izan behar da.

Harremanean konfiantzarik ez badago, jelsia, segurtasunik eza, autoestimu gutxi, mendekotasun asko... agertzen dira eta horrekin lortuko dugun gauza bakarra harremana apurtzea da.

Errespetua da harreman osasuntsua izateko bete behar den beste oinarrietako bat.

Ororen oinarria, berriz, zera da, zeure burua maitatzea beste norbait maitatu baino lehen, bestela, harremana zerbaitengatik hausten bada, ez zarelako aurrera egiteko gai izango, ez baituzu izango nahiko maitasun zeure buruari emateko.



Nola jakin harreman toxiko batean zauden?

Hasten da jarrera toxiko samarrak erakusten, adibidez, zuk lagunak izatearekin gogaitzen da, zure mugikorra begiratzen du askotan, berarekin ez bazaude ez dizu jantzen uzten nahi duzun bezala, haserretzen da zentzurik gabeko gauza gehiegigatik... Pertsona hori fisikoki baita mentalki ere manipulitzen hasten da...

Horrelako gauzak gertatzen bazaizkizu, ez da jelsia, askatasun falta baizik. Inoiz hori gertatzen bazaizu, hortik atera behar duzu.

Nola askatu zure bizitzaren parte izan den pertsona bat?

Zure bizitzan maitasun nahikoa izan behar duzu eta, ez baduzu, pertsona hori askatu ahal izateko lan egin behar duzu. Alde hori landuta daukazunean, hurrengo pausua, pertsona hori alde guztietatik blokeatzea da, argazki guztiak ezabatzea, beste gauza batzuekin distraitztea pertsona horrengan ez pentsatzeko, nahiko argi eduki behar duzu ez duzula nahi zure bizitzan, hau da, ez egon zailantzan.



Nola konturatu ez duzula pertsona horrekin itzuli behar?

Pertsona horrek min eman dizula ikustea da hasiera, eta pertsona horrekin itzuliko bazina, bukle etengabe batean egongo zinatekeela. Bigarrena zera da, pertsona horrekin ez bada, mundua ez zaizula amaitzen, ate bat ixten zaizunean beti beste irtenbide bat dagoela. Eta, hirugarrena eta garrantzitsuenak, beti nahikoa zarela pentsatzea da, pertsona bat zure bizitzatik desagertzeak ez duela esan nahi ez zarenik.

Nola ikusi matxismoa dagoen zure harremanetan?

Hasieran jarrera nahiko toxikoak izaten hasten da, baina gero askoz indartsuagoa da... Hasten da debekatzen margotzea, janzkera, pentsaera, jokamoldeak, ez dizu uz-

ten zure lagunekin joaten, nahi duzunengandik urruntzen zaitu.. Eta askoz ere gauza gehiago.

Nola fidatu norbaitekin, beste norbaitek mina egin dizunean?

Lehenik eta behin, nahiz eta mesfidati egon, mundu guztia ez dela berdina ikasi behar duzu, eta mundu guztiak ez dizula kalterik egingo. Zure osasun mentala zaindu behar duzu, eta gauzak nori eman eta nori ez ikasi. Pertsona horrengan konfiantza jarri behar duzu, eta zure konfiantza ere eman.

MENDEBALDEAKO GAZTEEN AHOLKUAK, nola fidatu berriro?

- motzean lotuz
- ezin da berriro fidatu
- konfiantza emanaz
- oso zaila da
- denbora pasatu behar da



MENDEBALDEAKO KUXKUXEROAK



1. Zein mailatan zaude? Eta zein izan da zure kurtzorik hoberena? Eta txarrena?
2. Mendebaldea zaila iruditzen zaizu?
3. Zer ezagutu duzu gehiago irakasle onak ala txarrak?
4. Irakurtzen al duzu MENDEBERRI, Mendebaldeako aldizkaria?
5. Aldatuko zenuke Mendebaldeako zerbait?
6. Zein da zure hautazko ikasgaia? Zergatik aukeratu duzu?
7. Zure ustez, zein da ikasgairik zailena?
8. 16 urterekin institututik joan egingo al zara?
9. Zer egingo duzu Lanbide Heziketa edo Batxilergoa?
10. Unibertsitatera joan nahi al duzu?

NERMIN OUCI, DBH 1.F

- 1.1. mailan.
2. Ona da jendea ezagutzeko.
3. Txarrak
4. Ez
5. Bai, irakasleak.
6. Teknologia.
7. Biologia-geologia.
8. Ez .
9. Ez dakit.
10. Bai, baina ez dut nahi egin urte askoz ikasi behar delako.



JOEL PÉREZ, DBH 1. F

- 1.1. mailan.
2. Ez
3. Txarrak, ez zaizkit gustatzen.
4. Ez.
5. Bai, irakasleak,
6. Teknologia.
7. Matematika.
8. Espero dut baietz.
9. Ez dakit.
10. Ez.

OIER JIMÉNEZ, DBH 2. F

1. 2. mailan. 1. maila hoberena, baina zailena.
2. Ez.
3. Txarrak.
4. Ez
5. Maila akademikoa.
6. OFE (Osasun Fisiko eta Emozionala), kirolarengatik.
7. Fisika-Kimika.
8. Ez.
9. Lanbide Heziketa.
10. Bai.



YASMIN BEN ALI, DBH 2. F

- 1.2. mailan. Errepikatzaila naiz; lehenengo 2. maila hoberena izan zen, oraingoa txarrena.
2. Bai.
3. Txarrak.
4. Ez.
5. Irakasleak eta arauak.
6. OFE (Osasun Fisiko eta Emozionala), ez nuen frantsesa aukeratu nahi.
7. Historia.
8. Bai.
9. Batxilergoa.
10. Ez.

JUNE IRIONDO, DBH 3. A

1. 3. mailan. 2. maila izan da hoberena eta 3.a, momentuz, Txarrena.
2. Ez.
3. Txarrak.
4. Bai.
5. Ez.
6. OFE (Osasun Fisiko eta Emozionala), ezin izan nintzen-Prentsa Tailerrean sartu.
7. Matematika.
8. Ez.
9. Batxilergoa.
10. Bai.




ERLANTZ AYLLON, DBH 3. A

1. 3. mailan. 1. maila hoberena eta 3. maila txarrena
2. Ez.
3. Onak.
4. Ez.
5. Ez.
6. Alemanera. Ez dakit.
7. Historia
8. Ez.
9. Ez dakit.
10. Ez.

MALEN LÓPEZ DE OCÁRIZ, DBH 4. F

- 1.4. mailan. 2. maila hoberena, eta txarrena, momentuz, 4. maila.
- 2.Bai.
- 3.Txarrak.
- 4.Bai.
- 5.Ezer ere ez.
- 6.Frantsesa, hizkuntzak gustatzen zaizkidalako, Kultura zientifikoa ez direlako azteketak egiten, Ekonomia ez zaidalako Teknologia gustatzen eta erlijioa proiektu komunitarioan ez delako ezer egiten.
- 7.Gaztelania.
- 8.Bai.
- 9.Lanbide Heziketa.
- 10.Bai.



ASIER GARCÍA, DBH 4. F

- 1.4. mailan. Hoberena 4. maila da eta txarrena 3. maila.
- 2.Ez.
- 3.Txarrak.
- 4.Ez.
- 5.Komunak.
- 6.Teknologia gustatzen zaidalako, Digitalizazioa erraza delako, Ingenieritza Proiektu erraza delako eta Proiektu Komunitarioa ez naizelako erlijiozalea.
- 7.Gaztelania.
- 8.Bai.
- 9.Lanbide Heziketa.
- 10.Ez dakit.



EUSKARARA ETORRIAK

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu eta aldarrikatu genuen institutuan ekitaldi ezberdinen bidez. Testuinguru honetan gure komunitatera heldu diren bi irakasle ezagutu nahi ditugu, **Carole Constanty eta Lu Serra**. Duela urte batzuk urrutitik etorri eta euskara beraiena egitea erabaki dute, euskara ikasiz eta euskaldunduz. Institutu eleanitza euskaratik eratzen laguntzen dute egunetik egunera.

Carole Constanty: “Euskarari esker lana daukat eta nire lana asko gustatzen zait”

Mendebaldea: Hasteko, non jaio zinen?

Carole: Kaixo, Carole naiz, eta Frantziakoa naiz, Parisen jaio nintzen.

M: Non bizi zara?

Carole: Hemen, Gasteizen bizi naiz.

M: Noiz etorri zinen Euskal Herrira? Eta Gasteizera?

Carole: Duela 20 urte gutxi gorabehera etorri nintzen Euskal Herrira, eta Gasteizera baita ere, duela 20 urte.

M: Zerk eragin zizun hona etortzea?

Carole: Lan egitera etorri nintzen.

M: Zergatik euskara ikastearen hautua?

Carole: Lehenik eta behin, hizkuntzak gustatzen zaizkit, eta horregatik erabaki nuen euskara ikastea, eta, bestalde, hona etortzean, lan bat aurkitzeko euskara beharrezkoa ikusi nuen.

M: Uste duzu badaudela hizkuntza errazak eta zailak?

Carole: Ez dut uste horrela denik, baina hizkuntza batzuk oso ezberdinak dira eta, orduan, kasu honetan pixka bat zailagoak dira.

M: Zaila egin zitzaizun EGA edo C1a ateratzea?

Carole: Beno, nire kasuan zorte ona ere izan zen eta ez zen izan hain zaila, egia da azterketan gauza oso bereziak eskatzen zituztela, baina azkenean ondo atera zitzaidan.

M: Nola bukatu duzu Mendebaldean?

Carole: Postu bat sortu zen hemen eta hemen nago.

M: Zein da zure iritzia institutuko hizkuntzei buruz?

Carole: Uste dut institutu honetan hizkuntza asko hitz egiten direla: Euskara, Gaztelania, ikasle askok arabieraz hitz egiten dute eta, gainera, hizkuntza asko ikasten dira: frantsesa, alemaniera, ingelesa...orduan ondo dago.

M: Aldatu al da zure bizitza euskaraz dakizunetik?

Carole: Bai, euskarari esker lana daukat eta nire lana asko gustatzen zait orduan aldaketa garrantzitsu bat izan da.

M: Zer botatzen duzu faltan zu etorritako lekutik?

Carole: Niretzat argi dago, familia.

M: Beno, hau izan da guztia, eskerrik asko.



Lu Serra: “Niri bizitza osoan hizkuntzak asko gustatu izan zaizkit, filologoa naiz”

M: Hasteko, non jaio zinen?

Lu: Kaixo, nire izena Luciana Serra da. Ingeleseko irakaslea naiz eta Argentinan jaio nintzen, Buenos Airesen.

M: Non bizi zara?

Lu: Orain hemen bizi naiz, Gasteizen, baina 20 urtez Kanpezun bizi izan naiz

M: Noiz etorri zinen Euskal Herrira? Eta Gasteizera?

Lu: Duela 21 urte Gasteizera etorri nintzen, gero Kanpezura eta berriro Gasteizera.

M: Zerk eragin zizun hona etortzea?

Lu: Hori bizitza pribatua da, euskaldun zahar bat ezagutu nuen Patagonian, elkarrekin ezkondu ginen, umeak izan genituen eta hona etorri ginen.

M: Zergatik euskara ikastearen hautua?

Lu: Niri bizitza osoan hizkuntzak asko gustatu izan zaizkit, filologoa naiz, eta hona etortzerakoan ba, gogoratzten dut kostatzen zitzaidala Alde Zaharretik pasatzea eta ikustea kartelak eta ez ulertzea zer jartzen zuen, gorroto nuen. Orduan esan nuen “ikasiko dut” ikusteko zer mugitzen den hainbeste hemen.

M: Uste duzu badaudela hizkuntza errazak eta zailak?

Lu: Ez, pentsatzen dut batez ere garrantzitsuena dela kontaktuan egotea hizkuntzarekin eta egiten saiatzea ahalik eta gehien, eta horrek lagunduko du ikasten.

M: Zaila egin zitzaizun EGA edo C1a ateratzea?

Lu: Hori bai; nik batez ere ikasi nuen familiarekin eta lagunekin hitz egiten eta, gero, C1 titulua ateratzeko momentua ailegatu zenean, kostatu zitzaizkidan idazlanak. Hori esaten diet nire ikasleei, idazlanak dira okerrenak denontzat, kostatzen zaigu baina ulertu behar dugu nola pentsatzen duten gure ingurukoek.

M: Nola bukatu duzu Mendebaldean?

Lu: Duela 2 urte egon nintzen hemen ere ordezkapen bat egiten. Aurten aukera neukan bueltatzeko eta egin dut, eta oso pozik nago.

M: Zein da zure iritzia institutuko hizkuntzei buruz?

Lu: Zaila da, institutuan beste institutuetan bezala da, batzuetan euskaraz egitea asko kostatzen zaie ikasleei kanpoan batez ere erdaraz hitz egiten dutelako, bai familiarekin, bai lagunengan artean... Eta, orduan, batzuetan uste dut sentitzen dutela euskara eskolako hizkuntza dela eta ez benetako hizkuntza.

M: Aldatu al da zure bizitza euskaraz dakizunetik?

Lu: Bai, noski, gauza askorengatik. Alde batetik, hemen Euskal Herrian beharrezkoa delako lan egiteko, eta bai ala bai, hemen irakaslea izan nahi banuen, behar nuen. Baina munduaren nire ikuspuntua ere aldatu da, zeren eta hizkuntza hain txikia denez ni beste hainbat jende bezala irekitzen saiatzen naiz, eta baita nire umeekin hitz egiten haientzat euskara oso inportantea delako.

M: Zer botatzen duzu faltan zu etorritako lekutik?

Lu: Adibidez, bertako jendearen izateko modua eta lagunak.

M: Bueno hau izan da guztia, eskerrik asko.



MENDEKO ESKOLA KIROLAK

Menden kirol talde asko daude, batzuk talde ezagunak eta beste batzuk ez hain ezagunak, batzuk federatuak eta beste batzuk ez, baita mutil eta neskak aparte edo elkartuta jokatzeko dutenak. Saskibaloian, eskubaloian, boleibolen, *urban dancen*, *eskaladan...* izena eman dezakezu.

Guraso Elkarteak antolatuta hasieran, eta Athlon enpresak duela urte batzuetatik hona, kirol ekitaldiak eguneroko bihurtu dira institutuan, bertan jokatzeko duen jende kopurua gero eta gehiago. Markel eta Iker dira gaur eguneko Mendebaldeko eskola kirol taldeko koordinatzaileak, ekonomia daramatenak, talde-argazkiak egiten dituztenak, ligan sartzeko izena ematen dutenak eta hainbat gauza gehiago. Haiekin izan gara.

Urteak pasatu ahala, kirol mota eta taldeetako partaideetan aldaketak egon dira, kirol batzuk desagertu dira eta beste batzuk ospea irabazi dute, partaideen aldaketa etengabea da, normala den bezala (adina...).

Gaur egun, guztira 26 talde daude institutuan, 15 saskibaloikoak, neskenak zein mutilenak, 10 boleibolekoak, 9 neska-talde eta mutilen bat, eta eskaladako bat, neska—mutilena. Taldeak ikusita, ikusten da saskibaloian talde gehiago daudela, 12 jokalaririk gutxi gorabehera ekipo bakoitzeko, boleibolean, aldiz, talde gutxiago daude baina jokalaririk edo partehartzaile gehiago, 14 jokalaririk hartzen baitituzte talde bakoitzeko.

Gero eta ikasle gehiago animatzen dira kirol hauetan parte hartzera, boleibolean gehien nabaritzen da hau, kirolik arrakastatsuena izaten ari baita.

Aurten 3 kirol egiten dira eta horrela antolatzen da polikiroldegia; arratsaldeko 16:45etik 22:00etara okupatuta dago.

Astelehenetan, 16:45etik 18:00etara mutilak daude saskibaloia egiten. 17:45etik 19:00etara baita mutilak saskibaloia egiten ere, eta boleiboleko talde bat. 18:45-20:00 artean neskak sartzen dira boleirik egitera, gero 19:45-21:00 artean nesken saskibaloia talde bat sartzen da, eta baita boleiko neskak ere. Amaitzeko 20:45-22:00 artean boleiko azken bi taldeak sartzen dira.

Asteartean 16:45-18:00 eta 17:45-19:00 artean neskek saskibaloia egiten dute. 18:45-20:00 artean nesken boleik taldea. 19:45-21:00 artean nesken saskibaloia talde bat, eta, azkenik, bi talde federatuak.

Asteazkenean, 16:45-18:00 artean mutilak daude saskibaloia egiten, 17:45-19:00 artean mutilak eta neskak, saskibaloia eta boleirik egiten, 19:45etik-21:00etara mutil talde bat saskibaloira entrenatzen eta neskak boleira. 20:45-22:00 artean federatuak entrenatzen dute.

Ostegunean, 16:45etik-18:00etara eta 17:45etik-19:00etara neskek saskibaloian entrenatzen dute, 18:45-20:00 artean neskak boleirik egiten, 19:45etik-21:00etara neskak saskibaloia egiten, eta, amaitzeko, saskibaloia talde batek entrenatzen du.

Astea amaitzeko, ostiralean teknifikazioak eta entrenamenduak alternatzen dira ekipo desberdinekin. Ordutegia adinaren arabera edo taldearen arabera aldatzen da, boleibolean, adibidez batxilergokoek 19:45etik-21:00etara entrenatzen dute eta hurrengo orduan entrenatzaileek edo federatuak.

POLIKIROLDEGIA	AL	AS	AZ	OG	OT		POLIKIROLD.
16:45-18:00	S 2012 M SORTU	S 2012 N PIZTU	S 2012 M SORTU	S 2012 N PIZTU	URDINAK	BERDEAK	16:00-17:00
	S 2011 M IZAN	S 2011 N BATU	S 2011 M IZAN	S 2011 N BATU	STM (13)	STN 2012 (9)	
		S 2011 N MAITE		S 2011 N MAITE	BT (3+10)	STN 2011 (13)	
17:45-19:00	S 2010 M EGIN	S 2010 N GARA	S 2010 M EGIN	S 2010 N GARA	S EGIN (7)	S EKIN (6)	17:00-18:00
	S 2009 M EKIN	S 2009 N IRAUN	S 2009 M EKIN	S 2009 N IRAUN	B EKIN (7)	B GARA (8)	
	B MUT SORTU		B MUT SORTU		S IRAUN (7)	S NAIZ (10)	
18:45-20:00	BOLEI 2010 TOPA	B 2012 PIZTU	BOLEI 2010 TOPA	BOLEI 2012 PIZTU	B HEZI (8)	B HAZI (7)	18:00-19:00
	BOLEI 2010 EKIN	B 2011 BATU	BOLEI 2010 EKIN	BOLEI 2011 BATU	S HAZI (9)		
	BOLEI 2009-10 HEZI		BOLEI 2009-10 HEZI		S HEZICORAS		
19:45-21:00	S 2007-08 M NAIZ	S 2007 N HAZI	S 2007-08 M NAIZ	S 2007 N HAZI			20:00-21:00
	B 2010 BERR IRAUN		B 2010 BERR IRAUN	S 2009 HEZICORAS	SUBMARINO		
	B 2007-08 GARA		B 2007-08 GARA		BOLEI SENIOR NESKAK		
20:45-22:00	B 2006-07 HAZI	SENIOR NESKAK	B 2006-07 HAZI	BAPO	SENIOR NESKAK		21:00-22:00
	BOLEI SENIOR NESKAK	BAPO	SUBMARINO				
			BOLEI SENIOR NESKAK				
GIMNASIOA	AL	AS	AZ	OG			GIMNASIOA
16:00-17:00					ESKALADA		16:00-17:00
17:00-18:00							

Boleibolaren arrakasta nabarmentzeko kontua da, azkenengo urteetan jende asko sartu da, ez bakarrik Menden, beste institutu batzuetan ere bai. Ez dakigu zergatik baina orain normala da jende askok boleibol egitea. Duela urte batzuk saskibaloia izaten zen arrakastatsuen.

Mendeko ekipoetan egoteko ez zara Mendebaldeko ikaslea izan behar, jende asko dago beste ikastetxeetatik datorrena, esate baterako, Ekialde edo Lakuatik... eta horrek gure institutua ezagunagoa egin du.

Nahiz eta ligan ez gabiltzan oso ondo, ospea irabazi dugu, talde batzuk nahiko onak dira eta ez dugu etsiko.



ESKALADA

Garaitza, Iraide, Xabier, Markel, Anartz, Kimetz, Gorka, Mattin eta Ibai.

Entrenatzailea: Aiur.



MENDE GARA

Nicol, Eider María, Henar, Maialen, Leyre, Ainhize, Maitane eta Oihane.

Entrenatzaileak: Judith eta Maraia.



MENDE EGIN

Ibai, Nicolas, Ekaitz, Oier, Daniel, Ruben, Peru, Oier, Hegoi, Mikel.

Entrenatzaileak: Judith eta Amaia.



MENDE BATU

Arianne, Itsaso, Alma, Nicole, Ane, Izaro, Tatiana Iria eta Aitana.

Entrenatzailea: Uxue.



MENDE IRAUN

Ane, Izaro, Eider, Ane, Adriana, Aiala, Naroa, Ixone, Lur eta Izaro.

Entrenatzailea: Ander.



MENDE

Elena, Olaia, Celia, Izaro A., Izaro O., Nahikari, Nahikari S., Garazi, Maialen eta Alazne

Entrenatzaileak: Iker eta Markel.



MENDE TOPA

Ashley, Eider, Iraia, Meryem, Lola, Madeleine, Zuriñe, Lorea, Alba, Arrate, Nora eta Henar.

Entrenatzailea: Leire.

P. Diddy rap-kantaria auzitara eraman dute sexu erasoengatik

Gai honek gure hizketaldi asko okupatu ditu. Ez dakigu hiri-legenda den edo ez, baina egunkari eta aldizkari seriotan ere lerro asko eskaini dizkiote gaiari.

Rapero, musika ekoizle eta enpresaburu estatubatuarra da P. Diddy, Sean John Combsen izen artistikoa. 1969ko azaroaren 4an jaio zen New Yorken. Sei neska ezberdinen zazpi seme-alaba izan ditu.

2023ko azaroan hasi zen P. Diddyren polemika. Sexu delituak leporatzen dizkiote, pertsonetara ko tratatu txarreatik, prostituzioa barne. 120 pertsona daude inplikaturik, horietatik 25 adingabeak dira. Bortxatu omen duen gazteena 9 urteko mutikoa zen, bere estudioan.

P. Diddyk egiten zuena jakin baino lehen, biktimek pistak ematen zituzten, adibidez Justin Bieberrek (*Jummy*), Eminemek, Katy Perryk eta J Colek (*She k'nows*) abestiak egin zituzten kontuarekin. “Beyoncéren madarikazioa” deiturikoa, abeslariaren kategoria berean *Grammy* bat irabazten zuen artista orok omenaldia egin behar zionbere onarpen-hitzaldian. Harry Stylesek eta Tylor Swiftek Beyoncéri dedikatu zizkoten *Grammy*ak eta Adelek bere *Grammy*a apurtu zuen beragatik. Baina Aaliyah eta Left Eye ez zioten beraien *Grammy*a dedikatu; horren ondorioz omen, hilda aurkitu zituzten. Aaliyah 2001ean hegazti istripu batean hil zen eta Left Eye 2002 auto istripu batean.

Oso ezaguna eta susmagarria izan zen Michael Jacksonen heriotza. 2009an bere errepresentanteari dei bat egin omen zion. Dei horretan mutil talde bat zegoela bere etxearen kanpoaldean eta ez zela seguru sentitzen esan zion. Urte horretan ekainaren 25ean hil zen “gaixotasun” batez.

2009an Michael Jacksonen heriotzaz gain, Justin Bieber eta Jaden Smithen gurasoek ere saldu egin zituzten “jai zurietan” bortxatzeko. Jai zuriak P. Diddy antolatzen zituen, pertsona ospetsu mordo batzuekin. Joaten zirenek bakarrik zekiten zer gertatzen zen festa horietan. Jai horietan, parte hartzaileek gorputzari legez kanpoko gauzak sartzen zizkioten eta janaria neska biluzien gainean zerbitzatzen zen. Festa hauetan Justin Bieber eta Jaden Smith mehatxatu eta drogatu zituzten bortxatu ahal izateko. Hori eta gero, biek elkarrekin abesti bat atera zuten.

Tartean egon ziren pertsonen taula bat atera da. Eminem, Katy Perry, J. Cole, Beyoncé, Jay-Z, Justin Bieber, Will Smith, Kardashiantarrak, Leonardo DiCaprio, Jennifer Lopez, Travis Scott, Tommy... omen dira tartean.



Zer egia? Zer legenda? Kontua auzitegietan dago. Izango dira berri gehiago.

AGUR, BENITO !


Berrogehita hamazazpi urte pasa ondoren, Benito Lertxundik azaroaren 27an iragarri zuen diska gehiago ez duela argitaratuko eta ez duela kontzertu gehiago emango.



Benito Lertxundi 1942ko urriaren 6an jaio zen Orion. Bederatzi anai-arrebatik txikiena izan zen. Txikitatik abesten zuen bere familiarekin eta margotzea zuen zaletasun. Eskola amaitutakoan, Zarauzko Arte eta Lanbide Eskolan hasi zen. Bertan buztinarekin eta egurrarekin lan egiten hasi zen, eta hainbat sari irabazi zuen. 1965ean *Ez Dok Amairura* elkartu zen. 1971ean bere

lehenengo diskoa atera zuen bere izena izenburuan jarrita. Hemezortzi disko atera ditu 1971-2019 artean. 2023an Gernika-Lumon grabaturiko kontzertuaren zuzenekoaren diskoa aurkezteko agerraldian Lertxundik iragarri zuen 60 urteko ibilbidea bukatutzat ematen zuela eta musikagintza utziko zuela. Orain deskantsu merezia izango du.

BENITO LERTXUNDIREN EZINBESTEKO 10 KANTA



LORETXOA

NERE HERRIKO NESKATXA MAITE

OI AMA ESKUAL HERRI

PRIMABERAKO LILIAK

ITSASOARI BEGIRA

ATARRATZEKO GAZTELUA

ERRIBERA

UDAZKEN KOLORETAN

BALDORBA

BALEAREN BERTSOAK

MENDEKO BERRIAK



Javier Elvira Fernándezek, 23-24 ikasturtean MENDEBALDEAn graduatu zen ikasleak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako Batxilergoko Sari Berezietako bat irabazi du beste 16 gazterekin batera.

Argazkian Javi Begoña Pedrosa Sailburuarekin.



ASMAKIZUNAK

1. Lumaia ederra dut, handia eta zorrotza moko, beti errepikatzen dut entzun eta ikasitakoa.
2. Tinta badut baina ez idazteko, hanka asko ere bai, baina ez ibiltzeko, harroa naiz erdia eta erraza asmatzeko.
3. Azal huts gorputza, azala kanpoan, azala barruan: begientzat negargarri, ahoarentzat bizigarri.
4. Beti harro-harro doan oihaneko erregea; ikusten baduzu zirkoan preso dagoen seinalea.
5. Zein ote da, zein abeslari goiztiarra, kanpandorreko kantari arra.
6. Usaimen handiko aberea, etxe barruko ehiztaria, ez baduzu zaintzen sukaldea, jaki goxoen harraparia.
7. Oso handia da, baina zirrikituetatik sartzen da; gainean jarri, eta ez zaitu zanpatzen aurpegian jo, eta ez dizu minik egiten.



Loroa / Olagarroa / Tipula / Lehoia / Kanpaia / Umea / Ura

